

## BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

### 2698

*AGINDUA, 2017ko maiatzaren 15ekoa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kontratazio-mahaien osaketa zehazten duena.*

Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua) Eusko Jaurlaritzako sailetan egindako berregituraketaren ondorioz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kontratazio-organoari edo -organoei laguntzen dieten kontratazio-mahaia edo -mahaia berrerratu behar dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua xedatzen du prozedura irekietan, mugatueta eta prozedura negoziatu publizatedunetan, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dutela, eta mahai horren eskumena eskaintzen balorazioa egitea izango dela.

Era berean, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua horrek ezartzen duenez, kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailburuaren eta erakundea atxikita dagoen saileko sailburuaren baterako agindu bidez eratuko da kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordeak txostenaren egin ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUGU:

1. artikulua.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren kontratazio-organoak, prozedura irekietan, mugatueta eta prozedura negoziatu publizatedunetan, kontratazio-mahai baten laguntza izango du. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu horrek, eta honako kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketaren Zerbitzuko arduradunak eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko arduradunak, batak zein bestek, lehendakari-funtzioa beteko dute, eta elkarren ordezko izango dira plaza hutsen kasuetan eta absentzia- eta gaixotasun-kasuetan edo bestelakoetan.

b) Batzordekideak:

Kontratazio-eskatzailearen ordezkaritza bat, kontratazio-organoak izendatua. Organo horren aholkularitza teknikoaren ardura izango du.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoari atxikitako kontu-hartzaile bat, haren titularrak izendatua.

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari bat, haren titularrak izendatua, otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuak (informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen Dekretua) xedatutako kasuetan. Ondasun eta zerbitzu informatikoen eta telematikoen kontratazioari dagozkion espedienteetan jardungo du.

c) Idazkaria-batzordekide aholkulari juridikoa: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona bat, kontratazio-organoak Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitako langileen artean izendatu beharrekoa. Kontratazio-organoaren aholkulari juridikoa izango da, eta kontratazio-mahaiaren idazkaria, hitza-ekin eta botoarekin.

2. artikulua.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitako Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kontratazio-organoak, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikitatedunetan, kontratazio-mahai baten laguntza izango du. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu, eta honako kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Kontsumobideko Zerbitzu Orokorretako Unitateko arduraduna; plaza hutsen kasuan eta absentzia- eta gaixotasun-kasuetan unitate-arduradun batek edo Erakunde Autonomoko teknikari batek ordezkatu du.

b) Batzordekideak:

Kontratazio-eskatzailearen ordezkari bat, kontratazio-organoak izendatua. Organo horren aholkularitza teknikoaren ardura izango du.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoari atxikitako kontu-hartzaile bat, haren titularrak izendatua.

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari bat, haren titularrak izendatua, otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuak (informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen Dekretua) xedatutako kasuetan. Ondasun eta zerbitzu informatikoen eta telematikoen kontratazioari dagozkion espedienteetan jardungo du.

c) Idazkaria - batzordekide aholkulari juridikoa: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona bat, kontratazio-organoak Erakunde Autonomoari atxikitako langileen artean izendatu beharrekoa. Kontratazio-organoaren aholkulari juridikoa izango da, eta kontratazio-mahaiaren idazkaria, hitza-ekin eta botoarekin.

3. artikulua.– Aukeran, eta kontratazio-organoak eskatuta, aurreko 1. eta 2. artikuluetan eraturako kontratazio-mahaietako parte izan ahalko da Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat, haren titularrak proposatua eta kontratazio-organoak izendatua.

4. artikulua.– Kontratu bakoitzaren administrazio-baldintza berezien agirietan jasoko da kontratazio-mahai bakoitzaren osaera eta haren kideen nortasuna, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

5. artikulua.– Aurreko xedapenen arabera osatutako kontratazio-mahaiak, halaber, eskumena izango dute esleitzeko prozeduretan esku hartzeko, baldin eta, kide anitzeko horrelako organoek esku-hartzea nahitaezkoa ez den arren, dagokion kontratazio-organoak horrela erabakitzen badu.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzean, indargabeturik geratuko dira xedapen hauek:

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko uztailaren 16ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko kontratazio-mahaia sortzekoa Turismo eta Merkataritza Saileko jarduketa-arloetan.

Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eta Osasuneko sailburuaren 2013ko ekainaren 18ko Agindua, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren kontratazio-mahaia sortzekoa.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 15a.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
JOSÉ ALFREDO RETORTILLO PANIAGUA.